



UDAL INSTALAZIOAK GARBITU ETA KONTSERBATZEKO ZERBITZURAKO ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko urriaren 13ko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da, eskaintza onuragarriena, esleipen-irizpide anitzekin; prozeduraren xedea da udal instalazioak garbitu eta kontserbatzeko zerbitzurako administrazio kontratazioa esleitzea. Hori dela-eta, argitara ematen da iragarkia, hala ezartzen baita Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 126. artikuluan. Hona hemen kontratuaren datuak:

1. Erakunde esleitzaileria

- a) Erakundea:** Gorlizko Udala.
- b) Espedientea bideratzen duen administrazio-atala:** Idazkaritza.

2. Kontratuaren helburua.

- a) Xedearen deskribapena:** Udal instalazioak garbitu eta kontserbatzeko zerbitzua esleitzeko.
- b) Kontratua burutzeko lekua:** Gorliz.
- c) Burutzeko epea:** Urte bat.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua:

- a) Izapidetzea:** Ohikoa.
- b) Prozedura:** Irekia.
- c) Modua:** Esleipen-irizpide anitzak.

4. Lehiaketaren oinarritzko aurrekontua: 140.000,00 € gehi 25.200,00 € BEZ.

5. Bermeak.

- a) Behin-behinekoa:** Ez.
- b) Behin betikoa:** Amaierako esleipen-prezioaren %5a, BEZ kanpo.

6. Dokumentazioa eta informazioa lortzea:

- a) Entitatea:** Gorlizko Udaletxea, Herritarren Arretarako Zerbitzua.
- b) Helbidea:** Eliz Plaza, z/g.
- e) Herria eta posta-kodea:** 48630 GORLIZ
- f) Telefonoa:** 94.677.01.93



g) **Telefaxa:** 94.677.58.07

7. Eskaintzak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko egunetik hamabosgarren (15) egun naturaleko 13:00 arte.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Administrazio-baldintzen orrietan ezarritakoa.

c) Dokumentazioa aurkezteko lekua:

- **Entitatea:** Gorlizko Udaletxea, Herritarren Arretarako Zerbitzua.
- **Helbidea:** Eliz Plaza, z/g.
- **Heria eta posta-kodea:** 48630 Gorliz.

8. Eskaintzak irekitzea.

a) Entitatea: Gorlizko Udala. Batzar-aretoa

b) Helbidea: Eliz Plaza, z/g.

c) Herria: Gorliz.

d) Eguna: Ikusi administrazio-baldintzen orriak.

9. Iragarkien gastuak: Ikusi administrazio-baldintzen orriak.